



Zirimiri taldea? Nik neuk ezin dut hori baieztatu. Beharbada bigarren taldea, gaztetxoena.

Ostiko jokoa

Mundiala izan da bai aurtengo mundiala, futbolaz ari gara, noski, beste ezer ez baitago gaur egun munduan. Gazte zein zahar, eme zein ar, denak, denok dugu futbola ahotan, defendatzeko zein kritikatzeko, baina beti futbola. Nire lagun baten amak *maixuari* esan zion legez semeak futbola baino ez zuela buruan adierazteko: “Mi hijo futbol, solo futbol”.

Hasiko gara esanez Ingalaterra aldean sortu zela football moderno eta, antza, ingeles edo britaniar horiek ekarri zutela Espainiara. Lehenengo taldea “Minas de Riotinto”-ko langile ingelesek eratu zuten 1878an. “Club Inglés” elkartearen barruan “Rio Tinto Football Club” sortu zuten. Beraz, ez ziren izan, horretan behintzat, ez Real Madrid ez Barça lehenak.

Dakizuenek, geuk ere bagenituen gure meategiak, beraz, denbora kontua baino ez zen. Jon Turuzeta ikertzaileak ederto adierazten du football-aren sorrera, hobeto esanda, sarrera, gure lurraldean: “*el deporte surgido en Gran Bretaña tuvo en nuestra tierra cuatro grupos o agentes*

que coadyuvaron a su implantación a finales del S. XIX: las tripulaciones de los barcos ingleses; los jóvenes vizcaínos que cursaban estudios o se formaban en el Reino Unido, los técnicos o empleados británicos residentes en Bizkaia y last but not least, los alumnos del colegio de Orduña y la “Universidad” de Deusto”.

1870ko hamarkadara aurreratu du Turuzetak sarrera hau, baina ez gara bene-benetan futboleko hasiko XX. mendera arte. 1898an Athletic Club taldea sortu zen eta 1900ean Bilbao Football Club, baina azken hau 1903rako desegin zen eta bere jokalaria Athletic taldean sartu ziren, talde indartsuago bat lortuz.

Ramon Adan de Yarza geologo ospetsuaren postala, Rodrigo semeari zuzendua. Honen beste seme biek, Marianok eta Jose Marik Zirimiri taldean jokatu zuten. Lanbidez meatze ingeniaria, 1871an lizentziatua, 1905-09 artean Madrileko meatze eskolako maisua, ez da harrizkeoa semeak futbolistak izatea. Gogoratu 1903an sortu zutela Athletic de Madrid eskola horretako ikasle bizkaitarrek.

Ordurako Espainiako hiriburuetara ere zabaltzen hasia zen sport hau, eta Bartzelonan eta Madrilen, zelan ez, football taldeak sortzen ari ziren. Athletic Club de Madrid ikasle bizkaitarrak sortu zuten 1903an; mea ingeniari-tza eskolakoek ziren eta hauen artean lekeitiar bat zebilen, Ramón Arancibia Lebario (antzua lehenengo denboraldian jokatu zuen). Lehen urte horietan gure Athletic-en “filiala” izan zen eta lehen-dabiziko zuzendaritzetan Ramón eta Claudio Ibáñez de Aldecoa aurkituko ditugu. Biak izan ziren lehenakariordeak zuzendaritza banatan eta baita jokalaria ere (Klaudio bigarren taldeko kapitaina). Ramón Solano bat ere agertzen da jokalaria moduan eta Rodrigo Adán de Yarza bokal moduan; hemengoak denak.


Izurrite beltza

Lehen hamarkada bietan futbola izurrite beltza lez zabaldu zen Bizkaian zehar; Lekeition Zirimiri taldea sortuko da 1915ean. Badirudi Ramon eta Klaudio *lakoixe* gutxi batzuekin baloi bat nahikoa zela honi ostikoka hasteko. Baloia akaso kronika honetako (1913-7-11) *maixu* gazteak ekarriko zuten:

En una de las escuelas de niños de esta villa y sustituyendo interinamente al anterior D. Francisco Lubiano (que ha sido jubilado) se halla un joven maestro llamado D. Cruz Gil Alonso, quien está desempeñando su cometido á las mil maravillas. Ocupa una media hora en ejercicios físicos a los niños (nuevo aquí) y en suscripción abierta entre ellos ha comprado un balón que es el ídolo de los mismos.



Athletic, 1903ko kopa txapelduna. Kamisetak ez ziren oraindik zuri-gorriak.



La Esfera (1925-8-29) 608. zenb. XII. urtea.

Dentro de breves días veremos a nuestros jóvenes jugar en las playas espaciales de Carraspio al hermoso é higiénico juego del balón pié dirigido por el nuevo maestro. Es una manera de que los chicos tomen afán a la escuela y si así continúa el director seguro estoy de que el pueblo le dará su justa recompensa.

Datu berri hau dela-eta, behartuta gaude ondorioztatzera plairoak Lekeition asmatu zirela. Ehun urte baino gehiago dira!!! Dagoeneko badabil zarauztar edo donostiarren bat, ondarrutarrak zer esanik bez, hemerotekan errekorra bereganatu nahian, baina sekula santan ez dute lortuko Karraspioko futbol zelaia hobetzea. Maracana edo Camp Nouren pare, musulmanak Mecara joan behar duten antzera euskaldun orok ere Karraspion jokatu beharko genuke hil aurretik.



Orduan de la Constitución, gaur egun Foru enparantza. Ez dakitenentzako, udaletxe aldeko ate edo porteria plazara bajatzen diren eskailerak osatzen zuten, beste atea, jertsea edo jakea lurrean jarrita prestatzen zen. Harmailak pilaran, goian eta erdi-erdian plazako postia.

Lekittoko plazia

Hala da, lekeitiarrok maite izan ditugu hondartzak (Karraspio eta Isuntza), baina baita plaza ere; belarra, batek daki zer dela eta, ez dugu izan gustuko; gaur egungoa ere artifizia da!

Betidunik jokatu izan dela plazan debeku hau datorkigu baieztatzen, (1914-4-11ko udal akta)

“Trató finalmente el señor Chopitea del juego de Foot-ball en la Alameda manifestando que constituye una gran molestia y hasta cierto peligro para los paseantes y demás gente que concurre a dicho paseo.

El señor Zabala expuso que está la Alameda falta de grijo y que se levanta mucho polvo principalmente el verano sobre todo si se permite jugar al Foot-ball añadiendo el señor Cincunegui que no es lugar adecuado para dicho juego el paseo de la Alameda y se acordó se prohíba en absoluto el que se practique dicho juego en el paseo de la Alameda”.

Beti ezagutu izan dugu debeku hau eta aguazilak ezinean, gelditu ezina gelditu ezinik, korrika, saltoka, agiraka, konturatu barik umeontzat hori ere futbol partiduaren parte bat zela. Zoritxarrez, egia da, lantzean behin bonbillaren bat edo andraren bat jo izan dugula, mende bat luze egiten da eta! Baina nahita sekula bez. Are gehiago esango dut, debeku horren ondorioz, ganorazko futbolistak barik futbito edo futbol-salakoak sortu izan ditugu. Bartzelonaren tiki-taka hori Lekeition asmatu zen: ezin zenez inor jo, ez zen porteriara txutatzen (shoot-atzen), baina bai “txupatzen”. Lekeitioko plaza “txupoiz” betetzen zen buru makur, berekoi, bakoitza artistatxo bat.

Plazak Lezamak berak baino zerbitzu hobeak eskaintzen zituen. Bi futbol zelai, goikoa nagusientzako eta behekoa, luzaro harri kiskirriz egina, txikitxoentzat, baloia portura jausteko arriskuarekin. Arbola-pean bankuek tenisean jokatzeko ezin hobeak. Kontziopea eta elizapea txapara edo berotzera jolasteko, entrenamendu gisa. Bizikletak, patinak, gomak... ikerketatik kanpo geratzen zaizkigu.



Europa League-ko 2012ko finala. Athletic biak elkarren kontra. Zoritxarrez gureek galdu zuten, emaitza dagoeneko ahaztu zait. Antzarretan baino jende gehiago, halan bizi dugu fubola lekeitiarrok!

Mens sana in corpore sano. Zirimiri

Ez da latinik jakin behar esaldi hori ulertzeko. Argumentu hori erabili zuten Zirimiri talde horretako partaideek udaletxeari bidalitako eskaera honetan 1915-5-22an. 33 gazteren sinadurez lagunduta, sortu berri zen talde horrek 150 pesetatako laguntza eskatu zion kontzejuari: *“esperamos del muy ilustre Ayuntamiento de la M.N. y M.L. villa de Lequeitio, no solamente su apoyo moral, sino también la ligera suvención de 150 pesetas anuales aunque no sea mas que en su periodo naciente...”* eta beraien helburu nagusia kirolen sustapena zen: *“desarrollo de los sports athléticos que tan palpable influencia tienen en el desarrollo intelectual y físico de la juventud...”*. Argitu behar dugu orduko klubak ziklismoaz edo atletismoaz ere arduratzen zirela, baina futbola nagusitu zela.

Azkenik bizioak eta tentazioak baztertze-ko ere baliagarria omen zen:

“dichos sports contribuyen al fin señalado no solamente evitando un gran numero de vicios cuyos estragos en la juventud son sobradamente conocidos...”



Arraroa zen, beraz, herrian denak ados ez egotea, baina beste herri-tar talde bat kontra agertu zen, egia esan, laguntzaren kontra batik bat.

1 Los señores que componen esa sociedad son en general personas que se encuentran en bastante buena posición pecuniaria...

2 Muchos de los socios de la misma no son vecinos de la villa de Lekeitio...

3 El campo de Sport de dicha sociedad se halla enclavado... en terreno de la Anteiglesia de Mendeja ... en punto nada apropiado...


Ez zebiltzan gezurretan baina udalak, Manuel Garabilla alkate zuela, 100 pezetako laguntza ematea erabaki zuen taldeari, eta gainera, salatu zuen kontra zeudenen eskarian sinadura batzuk faltsuak zirela: “Dio cuenta el Sr Presidente que según se nota por los rasgos en esta Instancia hay firmas falsificadas ó de personas que no han tenido intervención en la pretensión que se formula; y en su vista se acordó denegar lo que en ella se solicita; y que se (dé falta) cuenta al juzgado de las suplantaciones de firmas para lo que proceda”.

Zirimiriren lehen partiduak

Dakidala lehen partidua, 1915-5-30ean jokatu zen, (beharbada lehenago ere jokatuko zuten partiduren bat; bakarrik dakit aurreko astean Malostekoen zain geratu zirela eta gernikar talde hau ez zela agertu). Gernikako Izarra taldearen aurka izan zen eta 1-2 galdu zuten. Artezkarria (arbitroa) Klaudio Ibañez Aldekoatarra eta kapitaina, jokatu ez arren, Maren (Mariano) Adan Yarzatarra. Futbol zelaia Mendexan zegoen eta Aldeko zen bere izena, Algorta familiakoek utzita agian: “...distinguiéndose especialmente del Zirimiri Oledan, los dos extremos delanteros, Mendia, Gonzalez y Zarate”. Bagoaz jokalarri batzuk ezagutzen.



Umeen hondartzako futbol partidua.



Markus-en akuarela. Bolkana, Kepa Naberan eta Menbrillua, Andoni Mada-riaga, Mermeleko jokalarri ilustrariak.

Handik gutxira, beste partidu edo match bat jokatu zuten Gernikako beste talde baten aurka, Maloste, eta oraingoan lekeitiarrok irabazi genuen 3-1. Nire hitzak baino askoz hobeak Basozabalenak “Euzkadi” egunkarian 1915-6-7:

Lekeitio

Ostiko jokua- Gaur jokatu dabe Gernikako “Maloste” aldriak eta emengo “Zirimiri”-ko lenengo aldriak (ez gastiekin Txanpelarrik esaban lez).

Bitzuben ederto jokatu dabe, atsegiña zan eurak ikustia. “Zirimiri”-kuak naikua zeregin izan dabe irabazteko; iru bidar sartu dabe pelotia ta Gernikarrak baten. Jarraitu “Maloste” ta “Zirimiri”.

Bazozabal jaunak kronika mezu kriptiko batekin bukatzen zuen: “Zirimiriri eskatzen dautsot emengo gaste batzuben ixenian eta neurian alegiñez urrengo joko-aldijan goixago asteko lengo igandean eta gaur baño; bestelan ba berandu egiten da zeubek dakixube zegaitik”.

Berandu zertarako? Mezatarako ala txikiteorako? Dena dela, berandu ibiltzea geneetan daramagulakoan nago. Nik neuk sekula ez dut partido bat sasoian hasten ikusi!!! Antzeko arazoa izan zuten udaleko bileretan orain dela 200 urte baino gehiago.

1793-3-1 l akta liburua, R51 1782-1799, 112 r:

“Teniendose consideración en que son muchas y muy notables las faltas de los Yndividuos del ayuntamiento en la concurrencia puntual a ella a la hora que se asigna, sin embargo de que se da aviso anticipado a todos y cada uno de ellos ...”

Honako pasadizoak agertzen direnean, Bolkana datorkit burura, Bolki eta bere “Lekeitio cuna de cerebros”. Zenbat barre egingo ete zenduan, hobeto esanda genduan! Apur bat berandu, badakit –hauxe duk hauxe gure destinu petrala hauxe-, baina sekula ez eidanez berandu zoria ona danian, Bolkana, zeuri eskaini nahi deusut lantxo hau.

Lekitarrak barriz lapia lakoxiak dira (beste partidu batzuk)

Zirimiri - Marianistak 5-0 (kronika Ekainaren 24koa da)

"Lengo baten "Zirimiri" Batzako gaztiak ostiko jokua euki eben bertoko Maristakin (erradura dabil, Marianistak ziren) Lenengo aldi (tiempo) ixan (z)an politena: batzuk eta bestiak, atera eldu nairik, ariñeketa ederrak ei-ebezan, ta baita Zirimirikuak sartun be lau bidar pelotia sarian (red); baña jokuen bigarren satija gatz bakua ixan zan: ba Maristak ikusirik bestien geyagotasuna, danak batuta lez egon ziran euren atien onduan (gaur egun autobusa jartzea diotsagu) beste ainbeste ez dautzietzan sartu, ta orregaitik beste bat baño ez-eutzien sartu". Ayerditarak sinatzen du kronika eta ez da hau ez urrunekoa!

Zirimiri- Mundaka 3-1 Euzkadi 1915-2-7: "Mundakarrak ederto jokatu eben, batez-be alkarri pelotia bidaltzen; lekitarrak barriz lapia lakoxiak dira, eztautse bakian isten pelotia daroyanari kendu arte al ba' dabe" "baña gauza bat esan biar dautzubet: Joko-tokija lautu ta zabaldu egin biar zeunkela geldi-geldika ba oituta dagozanai toki zabaletan jokatzen estuba ereisten yake ta onek asko lotuten dautsez askori euren jokarak"

Ez dugu ikasten, plazaka sindrometzat jo beharko dugu, egungo zelai edo joko-tokiak ere, Larrotegian, arazo berbera du! Amaitzeko Gaceta del Norteko beste kronika bat dugu 1915-8-7koa. Zirimirik berriro gaitutuko du Maloste taldea, oraingoan 2-0.

Zirimiri - Maloste 2-0

"El Sirimiri hizo un bonito juego: se veía que estaba mucho más entrenado y á ello debe la victoria.

El portero Eiguren me gustó mucho se coloca bien y es muy sereno; las defensas: Ugalde y Adán de Yarza (José María) cumplen, aunque no tan bien como nos tienen acostumbrados.

El centro medio Adán de Yarza (M.) muy trabajador pero los extremos flojearon aunque al final Anduiza trabajo bastante.

De los delanteros, el que me gustó más fué el extremo izquierda Larreta: corre muy bien la pelota y centra mejor, fue el terror de las defensas guerniquesas; el centro Mendía va dominando el juego de cabeza pero es un poco nerviosillo y abusa algo del juego sucio; los hermanos González que forman el ala derecha combinan bonitamente pero se entretienen demasiado haciendo filigranas.

Felicito a los del Sirimiri, pues con sus entrenamientos y entusiasmos por el foot-ball, creo que han de llegar á formar el equipo más fuerte de estos alrededores".

Kronika hau luzetxoa den arren, ia talde osoa ezagutzeko aukera eman digu.

Sistema piramidala erabiltzen zen, 2-3-5; atzelari gutxi eta aurrelari asko berdin gol asko, berdin espektakulua!





1915 aldeko Urduñako jesulagunen taldea. Aguirre lehendakaria atezainaren alboan, bere eskumaldean.

Abertzale eta elitista

Partiduetako kronikak alde batera utziko ditugu ea gauza garen zer edo zer argi ateratzeko. Ez gara, ez, adituak, baina badirudi, hastapenez, futbola kirol elitista eta “abertzalea” zela.

Zirimiriren eskaerako sinadurak ikusi baino ez dira egin behar eta aurkarien kexak lehen adierazpena berresteko. Asko orduko udatiarrak - lekeitiarrontzako beraneanteak- ziren, egia esan, gehienetan jatorriz lekeitiarrak ziren eta, dirudienez, patrika beteak. El Pueblo Vasco 30-6-1921: *“todos los años tenemos los lequeitianos el honor de que pasen los meses de verano en nuestra compañía las familias de Algorta, Madrazo, Gaminde, Corcuera, Aros-tegui, Ajubita, Arancibia, Longa; de todas ellas puede decirse que son de casa, por origenes de familia, por afecciones y arraigos y por vinculaciones de propiedades son lequeitianos...”* Yarzatarrek, Ibañez de Aldekoatarrak... ez ziren edonor. Unibertsitate edo kolegioetara joan zitezkeen gazteen kirola izanik, elite horren denbora-pasa bihurtu zen, gentlemen-en sport berria. Solanotarrek garai hartan

zesta-pilotan jokatzen zuten, oso ondo portzierto, Rodrigo Adan de Yartzak, berriz, eskia zuten gogoko eta beste batzuk yateak. Pueblo Vasco 1911-8-24: *Entre los diversos balandros que adornan nuestra hermosa bahía llaman la atención por sus excelentes condiciones los llamados “Lea”, “Miren” y “Rosa” propiedad de los distinguidos sportmen señores Solano, Algorta é Ibañez de Aldecoa, quienes constantemente hacen viajes de recreo a los puertos vecinos.*

Elite edo aberatsen jokoa izan zen, han eta hemen. Ez gara horretan, bada, originalak.

Interesgarriagoa da, nire ustez, abertzaleengandik lortu zuen babesa eta berotasuna.

Badirudi EAJ eta futbola eskutik doazela; zenbat eta emaitza politiko hobeak izan abertzaletasunean, Athletic-ek orduan eta garaipean gehiago: abertzaletasuna gora futbola ere gora.

Ez da erraza ulertzen zelan halako alderdi kontserbadore bat, ohitura zahar eta berna-kuloen gordetzaila, jarri daitekeen atzerriko kirol *exotiko* baten alde. Ikerketa sakonagoa eskatuko luke, baina ezin da ukatu kirol honen onurek (arrazza hobetu eta indartu, gazteak bizioetatik urundu...), garaiko anglofilia, elitearen babesak eta, zelan ez, jokoaren sinpletasunak eta xarmak (alderatu cricketarekin) lagundu zutela.

Aguirre lehendakariak Athletic-en jokatu zuen; Mariano Adan de Yarza, Lekeitioko alkate abertzalea Errepublikara garaian, goian agertu izan zaigu Zirimiri taldeko kapitain moduan; Jose M^a Belaustegigoitia Athletic-eko izarra alderdikide abertzalea zen; Sotatarrek, Sir Ramón aita, Ramón, Alejandro eta Manuel anaiak eta lehengusu Alejandro barik futbola ez zen izango egun dena. Badirudi derrigor izan behar zela futbolista politikaria baino, soldadutza antzeko *zeozer*. Ikertuz gero, baietz ehundaka politikari-futbolari abertzale agertu. Jesulagunen eta Elizaren onspena zuen kirolak garai hartan eta Euskal Herrian lurreratzeko pista lasaia zuen, Euskaldun fededun. Hala ere, irakurri izan dut, eta kontuan hartzekoa da, Elizak uste zuela, Argia astekarian agertzen zuen legez, joko moderno horrek arriskuan jartzen zituela gure ohitura zaharrak eta baita kultua bera ere, gazteek distraitu eta elizara joateari uzten zioten-eta. Iritzi edo jarrerara honek ez zuela aurrera egin seinale dugu futbolak izan zuen eta duen arrakasta.



1911ko argazki honetan Juan Zabala alkatea eta orduko handikiak agertzen dira baserritar erara jantzita. Solanotarrek, Adan de Yarzatarrek, Mariano eta Jose Maria futbolistak eta anaia Rodrigo, Ibañez de Aldekoatarrak, Klau-dio bera, edota Julian Tellaetxe pintorea. Asko udatiarrak, argazkia irailan ateratakoa da.

Epilogoa

Bat-batean Zirimiri dokumentaziotik desagertu egingo da, ez du euri gehiagorik egingo 1924ko irailera arte.

LUA Akta liburua 1924-9-24: *“El nombre de la Sociedad esperan sea el de “SIRIMIRI CLUB” y su único objeto habrá de ser el deporte, habiendo sido tomado ese nombre de otra Sociedad análoga que funcionó en esta hace muchos años. Dice además dicho Sr. Céniga (medikua) que son 128 personas los simpatizantes con la futura Sociedad...”*

Agian, erratuta ibiliko naiz, baina Apurtuar-te izena hartu zutelakoan nago. Talde bi garai berean askotxo zen ordurako; gainera, Zirimi-ri izena ez da aurrerantzean dokumentazioan agertuko.

Euzkadi 1928-1-22:

“... animar a la Junta directiva del Club Apurtuar-te y en general al pueblo de Lequeitio para hallar el medio de conseguir un campo de foot-ball donde los animosos deportistas de ésta pudiesen confirmar la no mentida fama de buenos ostikolaris de que siempre ha disfrutado esta villa.

En la blanda arena, aunque lugar poco apropiado para jugar al foot-ball, demuestra la afición que tiene por este deporte, y en algunos de ellos fácilmente se puede apreciar que tiene “madera” de la cual se podrían sacar buenos jugadores”.

Berriro gatoz hondartzako futbolera, *plaiaruetara*: lekeitiarron zoria.

Amaitzeko, oraingoan benetan, Juventud Turista Lequeitiana (1929) eta Club Lequeitio (1931) aipatu behar ditut. Udaletxean talde bi hauen eskariak aurkitzen dira, baina ez dakigu askorik. Eskariaren arabera, Lequeitio klubak 70 bazkide zituen eta kirolak sustatu nahian Costa Vasca futbol txapelketan parte hartu nahi zuen; gastuak handiak zirela eta laguntza behar zuten.

Hemen gelditu behar gara, 90 minutuak bete dira-eta baina izango dira partidu gehiago.


(Eskerrak eman nahi nioke Iñaki Madariaga Vidali hemerotekan egin zuen lanak gurea erraztu duelako.)




ZUTUNIK: José María Hernández, T. Ibáñez de Aldekoa, José Mari Kortazar, Paskual Larrazabal, Esteban Zabala eta José Leturia.

MAKURTURIK: Fresnedo, Salzedo eta Andrés Ordorika.

ESERITA: Andrés Collado, Angel Etxebarrieta eta Amalio Aranberri.



LEKEITIO - BIZKAIKO GOLKOA
CUNA DE CEREBROS GOLFO TÓXICO (KP NBRN)



Marrazkiaren egilea: Bitor Txakartegi

